

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a / 597. zenbakia

DONOSTIARRAK BERGARARA
Donostiako Orfeoia emanaldia egingo du San Pedron



JAIK: SAN MARTINETAKO FERIA ZAPATUAN/4 • ELKARRIZKETA: IKER AZAGIRRE PILOTARIA/8

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: JUANTXO ARANA

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 17
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 18
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 19
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 20
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

MARTITZENA, 21
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 22
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 23
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxi 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegarieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:30	Antzuola Domekak: 10:00, 11:30.
Osintxu Domekak: 12:00.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Elosu Domekak: 11:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Ubera Domekak: 10:30.	Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Domekak: 12:00.
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOAK
1948an jaiotako bergarrek afaria izango dute urriaren 2an, Zabala jatetxean. Izenematea (45 euro), Euskadiko Kutxan. Afari egunean autobusa izango da jatetxera joateko, 21:00etan Frontoitik.

ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEEN BAZKARIA
Aranzadi Ikastolan Batxilergoa ikasi dutenek bazkaria egingo dute irailaren 25ean. Izenematea (18 euro) ikastolako idazkaritzan egin daiteke, irailaren 15era arte. Argibideak ikastolan (943 76 90 71).

KATEKESIA MARTXAN
San Pedro eta Santa Marina parroketan katekesia hasiko da laster. Izena ematea hilaren 20tik 22ra bitartean egin ahal izango da, 17:00etatik 18:00etara. Argibideak Mariaren Lagundian (943 76 25 40) edo 943 76 46 20 (Mari Angeles Olaizola) zerbakian.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea eguaztenean, hilaren 22n, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Txapligu taldeak (8-11 urte) ikasturtea hasiko du urriaren 9an. Izenematea Jardunen, Errotalde jauregian.

TXISKRILABI TALDEA
Txiskrilabi taldean parte hartu nahi duten 12-16 urte bitarteko gaztetxoek Jardunen eman dezakete izena. 943 76 08 19.

KANTU LIBURUXKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Obarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERGARAN

Zineman lanean ziren bergararrak protagonista

1994ko irailaren 24an, sasoi hartan zineman lanean ari ziren herritarrei buruzko erreportajea argitaratu genuen. Besteak beste, egunotan gure herrian *Aupa, Etxebeste!* filma egiten ari den Asier Altuna *Kixi* azaltzen zen. *Salto al vacio* filmeko argiztapen arduraduna zen *Kixi*, Calparsoro zuzendariaren esanetara.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zartatekoa"



Zartada.
—Nik hartu najuan zartatekoa.

ION IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'LA SOMBRA DE UN SECUESTRO'

ZUZENDARIA: PIETER JAN BRUGGE. AKTO-
REAK: ROBERT REDFORD, WILLEM DAFOE.

HARIA. Wayne eta Eyleen goi klaseko bikote burgesa da. Senarra bahitu egingo dute, eta FBIk bikotearen sekretu ilun batzuen berri jakingo du.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'DORAEMON, GLADIADOREA'

ZUZENDARIA: TSUTOMU SHIBAJAMA.

HARIA. Japoniatik datozkigun marrazki bizidun hauek sekulako arrakasta lortu dute munduan zehar. Poco haur-robot bat da, eta Dester androidearen aurkako borrokan laguntzeko eskatuko dio Doraemoni. Euskarazko bertsioa ikusi ahal izango da Novedades aretoan.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

ATREBENTZIAEZPADA/ Ikasturte berria dela eta, ikastaroren baten izena emateko asmorik bai?



GURUTZE ALTZERREKA
46 urte

Aurten ez, ez daukat batere astirik ikastarorik egiteko. Orain dela gutxi UNEDen adineko pertsoneri buruzko ikastaro bat egin dut. Bestalde, askotan pentsatu izan dut ingelesa ikastea.



MIKEL LEZETA
34 urte

Gogoia soberan daukat, baina denbora falta. Hizkuntzak ikasiko nituzke gustura eta kirola ere egingo nuke: zaldian ibili, golfa... Marketeriako ikastaroren bat ere egingo nuke.




IÑAKI ERAÑA
42 urte

Gustura emango nuke izena, baina ez daukat astirik. Iazko ikasturtera arte ingelesa ikasten ibili nintzen, baina utzi egin nuen, eta hiru edo lau urtean ikasitakoa ahaztu egin zait.



ARANTXA JAUREGI
44 urte

Yogako ikastaroan eman dut izena. Iazko ikasturtean gustura ibili nintzen eta aurten berriz ere joateko erabakia hartu dut. Momentuz hori izango da egingo dudana ikastaro bakarra.



JON ANDER CASTRO
20 urte

Ez, ez daukat ikastarorik egiteko asmorik. Elementalean ari naiz ikasten eta horretaz gain futboleko jokatzen dut, eta horrekin nahikoa dut, ez daukat bestetarako astirik.



IRENE AGIRRE
31 urte

Trailean gimnasioan spinninga egiteko izena eman dut eta ingelesko eskoletarako ere bai. Intentsioz eta gogor hasi naiz, baina gero ikusi beharko da noiz arte irauten duan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EGON TABERNA Ibargaraiako Egon kafetegiaren kontrako kexa helarazi digu NA 15.389.672 zenbakidun I.I. herritarrek. Askotan pasatzen omen da iluntzean Egon taberna dagoen arkupetik, eta ia beti oso zikin aurkitzen du ingurua: plastikoak, paperak, pipak... Bere iritziz, egunez bere negoziarako erabilitako leku hori itxitakoa txukun laga beharko lukete tabernako arduradunek. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /9

GAZTEAK /13

Etxez etxeko zerbitzua

Gizaintzarekin izandako liskarren ondorioz, Eulen enpresaren eskuetan da etxeko zerbitzua.

Agorrosinen lanak hasi dira

Aste honetan bertan hasi dira Agorrosingo igerilekuko eraikina botatzeko lanak.

Gazteendako buletina

Gazte Informazio Guneko buletina aurkeztu dute. Buletina posta elektronikoz bidez zabalduko dute.

ASTEKODATUA

52,7


LITRO EURI JASO ZEN AURREKO EGUENEAN

Sekulako euri jasa izan genuen aurreko egunean, hilaren 9an. Luis Mari Agirreren datuen arabera, 52,7 litro euri jaso zen. Egun hartan 30 graduko tenperatura maximoa izan genuen.

BESTEKEESANA

“Oihulari Klown antzerki taldeko kideok zenbait saltsatan sartuta egon gara uda honetan. Kanpoan ibili gara, eta aurten uda internazionala izan dugula esan genezake. Portugalgo antzerki jaialdi baten izan ginen lehenengo; Italian ere hainbat emanaldi egin ditugu eta bertan informazioa jaso dugu, geuk ere ikastaroak egiten ditugu eta. Formazio sinisten dugu, izan ere, beste ikuskizun batzuk ezagutzeak eta hauetatik ikasteak asko laguntzen du, bultzakada handia izaten da guretzat. UNESCO erakundearen bidez, Bartzelonako Forumean ere parte hartu dugu udan. Esperientzia berria eta polita izan da hori: hitzaldietan inprobisazioak egin ditugu”
VIRGINIA IMAZ / Oihulari Klown antzerki taldeko kidea
‘Asteleheneko Goienkaria’/04-09-13

BERAIEKDIÑOĖ/ Mikel Elkoroberezibar



Traste zaharrak

Irailarekin batera herriko trenbide zahararen bideak ohiko paseatzaileez gain, Behobia-Donostia lasterketa prestatzen ari diren korrikalariz betetzen dira. Urtero korrikalari kopurua gora doa eta herri honetan beste gauza askorekin gertatzen den moduan trenbidearen zorua urteak pasa ahala egoera okerragoan dago. Ez dakit bide batean nola egon daitekeen horrenbeste zulo, putzu, harri... Guinness errekorren liburura aurkezten badute ziur aipamen bat behintzat lortuko duela. Berriz, Soraluze aldera joaten bagara trenbideak autopista bat ematen du. Eta ez da izango Udaleko agintariak abisatuta ez daudela, zeren korrikalarien aldetik eta egunero paseatzen dutenen aldetik kexak ezagunak dira.

Trenbideko pasioa lagatzen badugu eta herri barrura jotzen badugu gauzak ez daude benetan Bergaran gustura bizitzeko moduan. Aste honetan bertan

komunikabide batek zekarrenez bi urtez itxita egon ostean, igerileku zaharren eraikina bota behar omen dute. Horretarako zortzi hilabete inguru beharko dira eta gero bigarren fasea, hau da, igerilekuak egitearena, komunikabide horrek aditzera eman duenez oraindik epetan zehazteke omen dago. Eraikina botatzeko hiru urte inguru pasa badute, igerileku berriak egin arte ez dakit zenbat denbora itxoin beharko dugun.

Baina lasai, oraindik hor dago Arrizuriko etxea eta parkea Udaleko agintariak erabilera bat emateko zain, edo Seminarioko elizako eraikina trastez beteta. Hori da hori herriko plazan sekulako eraikina ikuskizunetarako erabiltzeko aukera izan eta Bergaran horrelako lokalak sobran dauzkagunez, ba hori traste zaharrak lagatzeko egotea. Agian pareko eraikinean dauden batzuk bertan sartuta hobe egongo lirarteke...

“Igerilekuetako eraikina botatzeko hiru urte pasa badute, igerileku berriak egin arte ez dakit”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitega Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Euskó Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

JAIK/ Bergara eta inguruko herrietako baserriko produktuak erakutsiko dira zapatuko ferian, San Martin plazan

San Martin jaietako feria bihar, eta domekan Erreleno eta Tostoiien Kofradiak kide berriak izendatuko ditu

EDU MENDIBIL

San Martin jaiekin jarraituz, bihar, zapatua, barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa izango da San Martin plazan, 10:00etan hasita. Ohikoa den moduan, Bergarako eta inguruko herrietako baserriarren produktuak izango dira ikusgai eta salgai. Lehiaketako sari banaketa, berriz, 13:30ean egingo dute. Bien bitartean, Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak eta Aitor Mendiluze eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariek alaituko dute giroa. Jardun elkarteko trikitilariak ere kalejira egingo dute, 11:00etan. Goizean zehar, Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Pello Urtzelai harakinen eta Xamatx eta Aritzeta taldeen eskutik, odolosteak dastatzeko aukera izango da.

DONOSTIAKO ORFEOIA ZAPATUAN

Arratsaldean, berriz, Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartaren kalejira izango da,

Udal Txistulari Bandak eta Kobok gaita jotzaileen taldeak lagun dute. 17:30ean San Martin plazan hasita, herri barruko kale nagusiak zeharkatuko dituzte.


Iluntzean, Donostiako Orfeoia emanaldia egingo du San Pedro parrokian, 20:30ean. Kulturako orrialdean duzue kontzertu horren berri.

Domekan, berriz, Beart elkar-teak antolatutako ageriko pintura lehiaketa izango da. Partaideek 09:00etan eman beharko dute izena kultura etxean, Errotalde jauregian, eta sari banaketa 18:30ean egingo dute.

Bestalde, Erreleno eta Tostoiien Kofradiako kapitulua izango da domekan. Etorriko diren 20 bat kofradiei 10:00etan egingo zaie ongiatorria, Frontoian. 11:00etan meza izango da Moja Klaratarren komentuan eta kofradiaren V. kapitulua 12:15ean izango da, udaletxeko areto nagusian. Bukatzeko, 120 bat lagun elkartzeko dira Lasa jatetxean egingo duten bazkarian.



Azken urteotan bezala, giro paregabea izango da biharko ferian. Inguruko herrietatik baserriar ugari etorriko da.






'IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA' DANTZA IKUSKIZUNA izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Edu Muruamendiaraz bergararra dugu Aukeran dantza taldeko zuzendaria. Euskal kulturaren antzinako mitoetan oinarritutako ikuskizuna da beraien bigarren lana. Besteak beste, Mari, Herensugea, Lamiak, Sorginak... Hamar dantzariokin batera, bost musikaririk hartzen dute parte. Sarrerak: 8 euro, 6 euro (26 urtetik behera) eta 4,5 eurotan (17 urtetik behera) salgai.



HERRIKO ODOLOSTEAK DASTATZEKO aukera izango da bihar, zapatua, San Martin plazan, 11:00etan. Arratsaldean, okela gisatuaren lehiaketa jokatu da, 17:00etan, eta sei bat elkar-te izango dira lehian. Iluntzean, txahal saiheski dastatzea izango da, 20:30ean. Xamatxek eta Aritzetak herriko hiru harakinekin batera antolatu dute jardunaldi gastronomikoa.




ERRELLENO ETA TOSTOIEN KOFRADIAK bosgarren kapitulua egingo du domekan. 11:00etako mezaren ostean, herri desfilea egingo dute plazaraino. Jarraian, 12:15ean udaletxeko areto nagusian izango den ekitaldian, Jesus Alberdi Egileor bertsolaria, Aritzeta abesbatza, Gaspar jatetxea eta Jesus Mari Ugalde zientzialaria ohorezko kofradekide izendatuko dituzte.

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

LANA/ Udalak Gizaintza SL enpresarekin zuen kontratua eten egin zuen uztailean

Etkez etxeko zerbitzua, Eulen enpresaren eskuetan

E.M.


Eulen enpresak hartu du etkez etxeko zerbitzuaren ardura. Ekainean eta uztailean Gizaintza SL enpresak langileekin izandako liskarren ondorioz, Udalak eten egin zuen Gizaintzarekin zuen kontratua. Behin-behineko kontratua sinatu dute Udalak eta Eulenek.

Udalak azpikontratatuak Gizaintza enpresaren bitartez eskaini izan da etkez etxeko zerbitzua azken urteotan, eta, gogoratu duenez, ekainean piztu zen Gizaintza SL enpresako arduradunen eta langileen arteko gatazka. 29 emakumek dihardute etkez etxeko zerbitzuan. Zerbitzua herriko 99 etxebizitzatan eskaintzen da gaur egun.

Langileek hainbat hobekuntza aldarrikatu zituzten, tartean lan ordutegiari eta soldatari zegozkienak. Gizaintzako langileek hainbat mobilizazio egin zituzten ekainean eta uztailean. Era berean, ekainaren 30etik uztailearen 6ra bitartean greba egin zuten. Gizaintzak uko egin zien langileen eskakizunei, eta orduan agerian geratu zen enpresaren egoera larria. Enpresak langileekin zituen zorrak argitzeke daude ordutik. Bergarako Udaleko ordezkariak ere saiatu dira Gizaintza SLko arduradunekin harremanetan jartzen, baina ezinezkoa izan da. Ez dago Gizaintzako ordezkarien arrastorik.

HAINBAT HOBEKUNTZA

Gauzak horrela, Udalak Eulen enpresari behin-behineko kontratua egin dio etkez etxeko zerbitzuaren ardura har dezan. Beraz, langileak Eulenerako dabilta lanean joan den abuztuaren hasiera ezker.



Bergarako 99 etxebizitzatan eskaintzen da etkez etxeko zerbitzua.

ARTXIBOA

*Besteak beste,
soldataren %6,6ko
igoera eta lanaldia
murriztea hitzartu
dute langileek*

Lehen zeuzkaten lan baldintzekin konparatuz, hainbat hobekuntza lortu dituzte langileek: soldatari dagokionez, % 6,6ko igoera hitzartu dute, urteko lanaldia 40 ordu gutxiagokoa izatea lortu dute—1.755 lan ordu izatetik 1.715 lan ordu egitera

pasatu dira—eta, azkenik, baje kasuan, %100 kobratuko dute lan istripuak edota gaixotasun profesionalak tartean direnean, eta %75 gaixotasun arruntak izaten badira.

GIZAINZTA, EPAITEGIETARA

Gizaintzak aipatutako langileekin dituen zorren kasuan, langileek euren enpresa ohia salatu dute, eta epaitegietan erabakiko da auzia. Era berean, langileek euren kezka azaldu dute Udaleko jarreraren aurrean, ustezko zerbitzu publiko batek azpikontratutako enpresa baten eskutian jarraituko duelako. Langileen egonkortasuna lortzeko egoerarik aproposena ez dela diote.

Aritzeta zozketa, Eibarrera

Amaia Fernandez eibartarra izan da Aritzeta abesbatzak uztailean egindako zozketako irabazlea. 3.282 izan zen saritutako zenbakia, eta Amaiak Luis Laskurainen koadro bat eskuratu du. Sari banaketa aurreko egunean egin zuten. Argazkian, irabazlea Aritzeko kideekin eta Luis Laskurain margolariarekin.

Aritzeta ordezkariak oso pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin eta zozketan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

Gerra denboran egin zuten lana aitortuko diote Zus belgikarrari

EDU MENDIBIL

Espainiako gerraren sasoiari Belgikak emandako laguntza eskertuko diote Zus Bernaerts-ri bihar, zapatua, Altzasun. Haren lagunek omenaldi beroa prestatu diote, eta 50 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko.

Zus Bernaerts aski ezaguna da Bergaran, azken urteotan urtero etorri izan baita gure herrira. Espainiako gerraren denboran, bere aita, Emmanuel Bernaerts, Anberes hiriko alkatea zen. Besteak beste, Bernaerts jaunaren ekimena eta lana ezinbestekoak izan ziren Belgikako flamenkoen herrialdean gerrako umeak hartzeko. Espainiako Estatutik 5.000 ume inguru joan ziren Belgikara 1936. urtean, gerra piztu zenean. Bergaratik ere hainbat ume joan ziren, Mari Oianguren irakaslearen laguntzaz. Oianguren Emakume Abertzale Batza taldeko kidea zen eta espedizio hartan hartu zuen parte. Mari Oianguren 2000. urtean hil zen, 89 urte zituela. Orduko protagonista gehienak hil badira ere, gutxi batzuk bizirik daude. Esate bate-

rako, umetan Belgikara joandako Miren Lizarralde biharko omenaldian izango da.

Bernaerts familiak harreman oso estua izan zuen Mari Oiangurenekin. Belgikan hasitako harremana ez zuten inoiz eten. Zus Bernaerts lehen aldiz 1958. urtean, 12 urterekin, etorri zen Bergarara. Ordutik hona urtero etorri izan da. 1963. urteko San Martinetan Umore Ona elkarte-ko banderaria izan genuen eta egunotan jaietan murgiltzeko aukera izan du berriz ere.

OMENALDIA BIHAR ALTZASUN

Lehenbiziko bisita hartatik hona lagun mordoa egin ditu Zusek Bergaran. Hori dela eta, omenaldia egingo diote bihar, zapatua, Altzasu elkartearen. 50 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko, 14:30ean. Bergarako Udalak plaka broigarria emango dio, belgikarrek eta bere familiak Euskal Herri-ko joandako umei emandako laguntza eskertzeko.

Zus astelehena ezker dago Bergaran, eta zera esan digu: "Bihotzez bergararra sentitzen naiz; ilusioz etorri naiz, lagunak ikusteko eta jaiekin gozatzeko".



PEDRO GARITANO

Argazkian, Zus Bernaerts, orain dela bi urteko Pazkoetan.

LABUR

Zinpeko mahaikide izateko zerrendak osatu behar direla eta, errolda ikusgai udaletxean

Udaleko alkatetzak kaleratutako bandoan jasotzen denez, zinpeko mahaikide izateko zerrendak osatu behar direla eta, hautesle-en errolda ikusgai izango da Udaleko idazkaritzan irailaren 23ra arte, 08:00etatik 14:00etara.

Esan bezala, zinpeko mahaikideen zerrendak osatzeko erabiliko da udal errolda.

San Joxepe erretiratuen elkartearen hainbat jardura martxan datorren astetik aurrera

San Joxepeko zuzendaritzak jakitera eman duenez, hainbat jardura abian jarriko dira hurrengo astean: eskulanak martitzenean, hilaren 21ean, 16:00etan; pintura hilaren 24an, 15:00etan; eta, azkenik, yoga hilaren 27an, 11:00etan. Abesbatzaren entseguak hilaren 21ean hasiko dira, 17:30ean. Bestalde, gimnasiako eskolak ez dira oraingo hasiko. Azkenik, Galziarako bidaia domekan, hilaren 19an, aterako da, 07:00etan. Argibideak: 943 76 30 09.



EUSKARA/ Datozen egunotan, 2.800 herritarri gutuna bidaliko diete, eta kanpainarekin bat egin dezaten eskatu

Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina jarri dute abian

EDU MENDIBIL

Euskeria, danon aukeria! lelopean, euskararekiko sentsibilizazio kanpaina jarri dute abian Udaleko Euskara batzordeak, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Jardun elkarteak. Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzea du helburu.

Kanpaina Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan kokatzen da eta helburua zera da: euskararik ez dakitenak ikastera animatzea eta dakitenak egitera bultzatzea. Helburu horrekin, herriko merkatariari, gurasoei eta Jardun elkarteak bazkideei sentiberatze gutunak bidaliko dizkiete egunotan. Hain zuzen ere, 2.800 lagun inguruk jasoko dute gutuna, kanpainarekin bat egin dezaten.

BI EGINKIZUN NAGUSI

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, ekainean euskalduntze-alfabetatzea indartzeko batzorde berezia sortu zen ekainean Bergaran. Goian aipatutako talde eta erakundeek



Argazkian, Udaleko, euskaltegiak eta Jardun elkarteak ordezkariek, eguazteneko prentsaurrekoan.

dihardute batzordean. Bi eginkizun nagusi ezarri ditu batzordeak: eguaztenean aurkeztu zuten sentiberatze kanpaina eta, aurrera begira, erabiltze proze-

sua uztartzeko urratsak ematea.

Sentiberatze kanpainaren ondoren, ikasleen ikas prozesua eta erabiltze prozesua uztartzeko bideak landu nahi dira. Bes-

teak beste, eskolaz kanpoko dinamika sortzea, antzinako ohiturak berreskuratzea eta elkarlana bultzatzea dira batzordearen asmoak.

LABUR

Alzheimerraren gaineko hitzaldia egunean

Alzheimer gaixotasunaren mundu mailako eguna ospatuko dute martitzenean, hilaren 21ean.

Hori dela eta, gaiaren inguruko hitzaldia antolatu du Afagi elkarteak egunerako, hilak 23, Bergaran. Koldo Aulestia AFAGIko presidentek eta Agustin Sagasta neurologoak alzheimerrari nola aurre egin azalduko dute kultura etxean, 19:00etan.

Gripearen kontrako kanpaina jarri dute abian

Osakidetzak gripearen kontrako kanpaina jarri du abian. Anbulatorioan txertoa hartzeko txanda eska daiteke. Interesatuak 943 03 54 00 telefonora dei dezakete, 14:00etatik 17:00etara. Bestalde, martitzenean, hilaren 21ean, txertoa jasotzeko aukera izango da Osintxun, 12:00etatik 13:00etara. Egunean, Labegaraletako kiroldegian izango dira Osakidetzakoak, 12:00etatik 13:00etara.

MOISES AZPIAZU dantza taldea

Plazara dantzara!



Matrikula epea zabalik!

Adina:

4 urtetik 15 urtera bitartean

Irakasleak:

Irantzu Lizarralde

Tel.: 676 520 368/ 943 76 36 36

Maite Lazkano

Tel.: 680 558 357/ 943 76 05 49

ANIMA ZAITEZ!

B · O · L · U



GURE ZERBITZUAK

- Shinkyokushinkai
- Kardiologia gela
- Tai-chi-chuan
- Makillajea
- Bio dantza
- Yoga
- Aerobika
- Sasoian egoteko gimnasia
- Pesak (muskulazioa)
- Areto dantzak
- Sauna
- Solariuma
- Masajea
- Osagarri dietetikoak
- Sevillanak





Aerobika eta sasoian egoteko gimnasia:

- Irakasleak: Oihana Iturralde, Elena Martinez, Idoia Moreno

Prestatzaile fisikoa:

- Montse Noguera

Shinkyokushinkai KARATEA



ORDUTEGIA:

Aste barruan: 9:00-12:00 16:00-22:00
Larunbatetan: 10:00-13:00

Irakasleak:
Karlos Albisua eta Aitor Albisua

Biak gerriko beltza 3. Dan Karate Shinkyokushinkai
Entrenatzaile eta epaile nazionalak
Espainiako Kyokushinkai federazioko kideak

Arane Erreka 9 • Tel.:943 76 72 91

ZUK AUKERATZEN DITUZU BAI ESKOLA KOPURUAK ETA BAITA EGUNERO EGIN NAHI DITUZUN JARDUERAK ERE.

ELKARRIZKETA

IKER AZAGIRRE/PILOTARIA

"Iaztik nengoen Logroñoko txapelketan finalera heltzeko gogoz, eta pozgarria izan da irabaztea"

EDU MENDIBIL

Iker Azagirre pilotari bergararrak (19 urte) Logroñoko El Cortijo auzoko lau terdiko txapelketa irabazi berri du. Finalean Mikel Iraola nafarrari nagusitu zitzaion. Aurten lortzen duen laugarren txapela izan da Logroñokoa.

Nolakoa izan zen Logroñon jokaturako finala?

Partidu oso borrokatua izan zen. Sakea nire alde izan arren, berak egin zuen lehenbiziko tontoa eta partiduen erdira arte atzetik joan nintzen. Hala ere, lasai egotea lortu nuen eta bera hasierako nerbioa galtzen hasi zen. Bi paretak eta dejadak eginez, nire jokoa egin ahal izan nuen eta 21-13 aurreratu nintzen. Gehiegi fidatu nintzen eta segidan lau tanto egin zizkidan. Hala ere, txapela janztea lortu nuen eta oso pozgarria izan da.

Zenbat kanporaketa gainditu zenituen aurretik?

Bi, Erlei Txurruka soraluzetarra (22-12) eta Abadiñoko Roberto Uriarteren (22-10) kontra. Iaz final erdietara iritsi nintzen txapelketa horretan; orduan 22-21 galdu nuen Berasaluzeren kontra. Iaztik neukan finalera heltzeko gogo. Gogoko dut torneo hori: giroa ezin hobea dago eta oso ondo hartzen gaituzte pilotarioi.

Aurtengo laugarren txapelketa duzu Logroñokoa. Zein izan da bereziena?

Guztiak, Logroñokoa eta Euskal Ligako banaka lortu ditut, eta Altzan eta Markinan, berriz, binaka. Beharbada Euskal Ligakoa estimatzen dut gehien, hila-

"Aurten lortutako txapeletatik Euskal Ligakoa estimatzen dut gehien: lan handia eskatzen du"


bete askotako lanaren emaitza delako eta gauza handia delako Euskadi mailako txapelketa bat irabaztea.

Atsedetik ez duzue. Orain txapelketa berriak hasten dira, ala?

Udan bi astebeteko atsedena hartu nuen, baina normalean partidu dezente egoten dira, han eta hemengo jaietan. Orain, berriz, klubun arteko txapelketarekin hasiko gara. Azken urteotan Elgetako Ozkarbi taldean ari naiz eta ea noraino heltzen gara. Egubakoitzean, hilaren 17an, daukagu lehenbiziko partidua, Elgetan. DV txapelketan eta Burlatakoan (banaka) ere arituko naiz.

DV txapelketan, zein asmo?

Uharte nafarra izango dut bikotekide eta ea lehen partidua gaituzterik dugun, urriaren 3an, Baez anaien kontra. Zaila izango da. Irabaztekoan, Errauskin eta Gorka Retegiren aurka jokatu genuke. Ahal dugun guztia emango dugu. Itxura ona ematea da gure helburu nagusia.

**Futbito txapelketa hasiko da hurrengo asteburuan**

E.M.

Labegarrietako futbito txapelketan 24 talde izango dira lehen aurtengo denboraldian. Txapelketa hurrengo zapatuan, hasiko da. Aurreko urteotan bezala, A Ze Flaxa, Mongatxurak eta Canalejas taldeak ditugu faboritoen artean.

Antolatzaileek bi taldetan banatu dituzte 24 taldeak. Datorren zapatuan, hilaren 25ean, abian jarriko da txapelketa. Labegarrietako futbito txapelketaren XIX. ekitaldia izango da aurtengoa. Azken ekitaldiarekin konparatuz gero, taldeen kopuruak

behera egin du. Zortzi talde gutxiago izango ditu txapelketak. Hutsunerik nabarmenena Pirulotarrak taldearena izango da. Arrasatearrek kopa eta superkopa irabazi zituzten ekainean, baina oraingoan ez dute izenik eman parte hartzeko.

Gauzak horrela, txapelketa-ko beteranoak ditugu garaipena eskuratzeko faborito nagusiak. Mongatxurak, Canalejas eta A Ze Flaxa taldeek maila ona erakutsi dute beti, eta oraingoan ere aurreneko tokietan izango dira ziurrenik. A Ze Flaxa ligako talde txapelduna izan genuen aurreko denboraldian. Bestalde, ikusteko dago zein izango den

txapelketako sorpresa nagusia.

HAMASEI ONENAK, 'PLAY-OFF'-ETARA
Liga sistema jarraituta jokatu da. Talde bakoitzeko zortzi talde onenak ligako *play-off*-ak jokatzeko sailkatuko dira eta kopako kanporaketak jokatu dira jarraian.

Araudiari dagokionez, ez da aparteko nobedaderik izango. Ohikoa denez, lau jokalar eta atezaina zelairatuko dira. Talde gutxiago egonda, antolatzaileak partidu guztiak kiroldegi barruan izan daitezten ahaleginduko dira. 250 lagun inguru arituko dira txapelketan.

Antolaketan diharduen taldeak jokalariei eskatu nahi die zintzo jokatzeko eta epaileak errespetatzea. Antolaketan laguntzeko gertu daudenei deia zabaldu nahi da. Interesatuak telefono honetara deitu: 943 76 06 36 (Jose Gomez Pesca).

24 talde, bi taldetan**A TALDEA**

Mongatxurak
Hiru Bide
Arrano taberna
Pagomendi Angiozar
Bayer
A Ze Flaxa
Brescia
Agirrebeña jatetxea
Errotagain
Fit automocion
De Resaka
Cosa Nostra

B TALDEA

Bar Canalejas
Niu-Tim
Egurre
Txipiron
KMT
Bar Ganbara
Kalaberas
FAK
PDS
Komando Piperrak
Belengua
All Blacks



Mongatxurak taldea izan da txapelketa eskuratzeko faboritoetako bat.

IGERIKETA

Eguaztenean hasi ziren Agorrosingo igerilekuko eraikina botatzen

Maiatzaren erdialderako instalazio berriaren egitura eraikita egotea espero da

E.M.

Antzibar SL enpresako langileak eguaztenean hasi ziren Agorrosingo igerilekuko eraikina botatzen. Lehenbiziko fase honetan taberna zaharreko eraikina eta barruko igerilekukoa botako dituzte eta instalazio berriaren egitura eraikiko dute.



Antzibar enpresako langileak eraikina botatzen hasi ziren eguaztenean.

Bergarako Udalak Antzibar SL enpresari adjudikatu dizkio lehen fase honetako lanak, 2 milioi eurotan. Lehenbiziko faseak zortzi hilabeteko iraupena izango du. Gauzak horrela, gauzak ondo badoaz, maiatzaren 13rako instalazio berriaren egitura eraikita izango da. Halaxe hitzartu dute Udalak eta Antzibar enpresak.

ZORTZI HILABETEKO LANAK

Antzibar SL enpresako langileak eguaztenean bertan hasi ziren eraikin zaharra botatzeko lanekin. Garai batean taberna eta azken urteotan Bergara Igeri Elkarteko bulegoak izan dituen eraikinarekin hasi ziren.

Era berean datozen asteotan barruko igerilekuko estalkia kenduko dute. Sabaia uralitakoa

denez, piezaz pieza kenduko dute, uralitaren apurtzeak amianto hutsa sortzea ekarriko luke eta. Toxikotasun handiko produktua denez, uralitaren tratamenduan espezializatutako enpresa batera eramango da estalkia. Behin estalkia kendu eta gero, makinak eraikin zaharra botatzeari ekingo diote. Antzibar enpresako iturrien arabera, sei

bat aste iraungo dute lanek. Esan bezala, Antzibarrek zortzi hilabeteko epea du lehen faseko lanekin amaitzeko.

Ondoren, bigarren faseko lanak adjudikatu ditu Udalak. Hala ere, oraindik ez du epeak jakitera eman eta proiektuaren finantziazioa ere argitzeke dago. Hasiera baten, proiektu osoaren aurrekontua 10,7 milioi eurotakoa da.

Pengxian Zhang txinatarrak irabazi zuen Bergara Hiria xake txapelketa

E.M.

Pengxian Zhang txinatar jokalaria irabazi zuen zapatuan jokatutako Bergara Hiria xake txapelketa. Partaideen artean hiru maisu handi eta bost nazioarteko maisu izan ziren. Zhang txi-

natarrak irabazi zuen, 6,5 punturekin. Bigarren Vladimir Lazarev errusiarra (5,5 puntu) izan zen eta hirugarren Alejandro Ruiz kantabriarra, 5,5 punturekin baita. Txapelketa sistema suitzarra jarraituta jokatu zen. Domekako gazte mailako txapelketan Iñigo

Martin donostiarra nagusitu zen, Alain Prieto durangarra eta Iñigo Galarza donostiarraren aurretik. Taldekako sailkapenean Gros taldeak irabazi zuen. Aste barruko xakearen inguruko ekitaldian, berriz, jendearen erantzuna nahi baino eskasagoa izan da.

FUTBOLA

Bergara-Beti Gazte preferente mailan eta beste hiru partidu zapatuan Ipintzan

Bergarako futbol talde nagusiak Beti Gazte izango du bisitari zapatuan Agorrosinen, 17:00etan. Horrez gain, beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: Bergara-Aitzgorri (bigarren mailako kadetak, 10:00etan); Bergara-Aloña Mendi (ohorezko mailako kadetak, 12:00etan) eta Bergara-Urki (senior mailako neskek, 19:15ean).

MENDIA

Pol-Pol Mendizalé Talde urriaren 12ko zubian Albarracina joateko irteera antolatu du


Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, urriaren 9tik 12ra bitartean Albarracina, Teruelera, irteera izango da. Prezioa 110 eurokoa da eta plaza mugatuak dira.

Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 telefonoan.

PILOTA ETA SASKIBALOA

Pilota partiduak eta kadete mailako nesken saskibaloit taldearen debuta zapatuan

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Bergara KEko kadete, gazte eta senior mailako bikoteek Zumarraga, Amezketa eta Azkoitiaren aurka jokatuko dute, hurrenez hurren, zapatuan Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Bestalde, kadete mailako nesken saskibaloit taldeak Easo hartuko du Mariaren Lagundian, 12:00etan.



TXIRRINDULARITZA

San Martin sariaren 39. ekitaldia domekan, Lehendakari Txapelketaren barruan

San Martin Txirrindulari Sariaren 39. ekitaldia jokatuko da domekan, hilaren 19an. Proba Lehendakari Txapelketarako puntuagarrria izango da. 19 eta 20 urteko txirrindulariak izango dira lehian.

Irteera 10:00etan egingo da, Matxiategin eta helmuga ere bertan izango da, 12:50ak aldera. Ibilbideak 108 km ditu.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53

Ariznoa

gimnasia

erritmiko

taldea



Irailaren 20an gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko dugu, hori dela eta **bilera egingo dugu arratsaldeko 18:00etan Aranzadi ikastolako gimnasioan.**


5 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono honetara informazioa jasotzeko:
943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAn: martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 18:00etan.

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak Antzuolan: martitzen, eguazten eta eguenetan, 18:00etan.

GIMNASIA



Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, etorkin, enpresa, Bergarako euskara, etab. Multimedia gela.

Azterketak prestatzeko: EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

Erritmoak: Bi ordukoa (iraila-ekaina) / hiru ordukoa (iraila-ekaina) / bost ordukoa (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina) / astean bi egunetan bi ordu eta erdi (EGA).


Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke. Galde ezazu!

Matrikulatzeko epea: Irailaren 2tik 24ra.

Bulego Ordutegia: Goizez: 8:30-13:00 | Arratsaldez: 14:30-18:30
Ostiraletan: 8:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.



Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...

HABEren dirulaguntza

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

UDAL
EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net



2004ko irailaren 17xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 32. alia

IEPA LAGUNOK!

Tarratataplan tarratataplan tarratataplan... Zelako astea! Eguaztenian nagusiak bete zuten herria tanbor hotsez eta eguenian zuek izan zineten protagonista. Baiña orain irakurri egizue. Pernando Amezketarrari gertatutako pasadizo hau. Ia zuen gustukua dan!!



IRABAZLIA

JUAN ZAN ASTEKO LEHIAKETAKO ERANTZUN ZUZENAK:

1. E
2. G
3. A
4. B
5. D
6. F



AGUSTIN MORCILLO
Mariaren Lagundia
10 urte

IPUIÑA

"Erretorearen txarrixa"

Hona hemen orain dala urte mordoxka bat Pernando Amezketarrari gertatutako pasadizo bat.

Erretoriak urtero hiltzen zeban txarrixa. Baiña herritar gehixenek txarri erregaluak emoten zotsanez, berak be erregaluetan banatu bihar izaten zeban txarririk gehixena. Hartzeko garaixan ez zeban ezetzik esaten, baiña emote horrek pena handixa emoten zotsan. Urte hartan gaiñera, ongi mantendu ez zebanez, hezur eta azal besterik ez zan txarri argal bat zeukan hiltzeko.

Goizian goiz hil zeban txarri hori. Berau nola banatu ongi pentsatzen jardun zuen, ze bestela, bazekien txarri osoa erregalitan juango jakola. Ostera, erregalirik banatzen ez bazeban, gaizki hartuko zeban herri osuak, hau da, herrixak ez zeban erretore jauna begi onez ikusiko. Ez zekixen zer egin eta Pernandori deitu zotsan gertatzen jakonaren berri emoteko.

Dana entzun zebanian, esan zotsan Pernandok:

- Horrek erremedixo erraza dauka, erretore jauna.

Nik esandakua egin ezazu eta ez zara damutuko.

- Ia ba... goizian hil dozun txarri hori ate onduan jarri bihar dozu jende guztiak ikusi dezan.



- Eta gero?
- Goizaldian jaso eta bihar, gabian txarrixa lapurtu dotsuela esan jendiari. Neri ez lostakie sinestuko, baiña zuri bai! Horrela ez dozu erregalirik banatu biharrik izango.

- Kontxo, kontxo ez dago gaizki!

Eta halaxe egin zuen erretoriak Pernandok esandako moduan. Baratzaren erdixan zintzilik ipiñi zeban txarrixa. Baita gabian Pernandok lapurtu be.

Hurrengo goizian egunsentiarekin batera juan zan erretoria, larri eta estu, Pernandorengana:

- Pernando, ezetz jakin zer gertatu zaidan! Bart gabian txarrixa lapurtu doste.

- Horrela, horrela! Zuk hori esan bihar jetzu ikusten dittuzun guztiei, danek sinetsiko dotsue eta. esan zotsan Pernandok.

- Baiña egia dala! Ez nabil gezurretan. Benetan harrapatu egin dostela.

Pernandok orduan:

- Hori egixa baldin bada, nere etxian begiratu egizu lehendabizi. Nere etxeko bazter guztiak errejistau egizu, horrela lasaixago geratuko naiz neu be.

Horrela, etxe dana erakutsi zotsan Pernandok erretoreari, baiña ez zeban txarririk topatu. Ongi ezkutatuta zeukan! Batian eta bestian ibilli arren, erretoriak ez zeban txarriaren arrastorik be topatu.



MUSIKA/ Aritzeta 25. urteurreneko ekitaldien baitan Donostiako Orfeoiak emanaldia eskainiko du bihar iluntzean San Pedro elizan

Donostiako Orfeoiaren kantuak entzuteko aukera izango da bihar San Pedro elizan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurten Aritzeta abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Emanaldi nagusia ekainean egin bazuten ere, oraindik bada besterik. Zapatuan San Pedro elizan Donostiako Orfeoiak eskainiko duen kontzertua, esaterako.

Ibilbide luzea du Donostiako Orfeoiak, 107 urtekoa, hain zuzen ere. Hogei kantu-zalek eman zituzten bide horretan lehen pausoak eta gaur egun abeslari profesionalak osatzen dute abesbatza.

Ehun grabaziotik gora eginak ditu Orfeoiak eta nazioartean izan duen oihartzuna ikusi besterik ez dago kantarien maila zenbaterainokoa den jakiteko.

EUROPAN KANTARI

Azken urteotan hainbat emanaldi esanguratsu egin ditu Donostiako Orfeoiak Europan.

Aipatzekoa da, besteak beste, 2001ean Berlinen, Orkestra Filarmonikoarekin batera, bi kon-

tzertu eskaini zituela eta emanaldiak grabatu ostean, 2003ko Grammy sarietarako izendatu zutela koru emanaldi onenaren sailean. Urte berean, eta Orkestra Filarmonikoarekin berriz ere, beste hiru emanaldi egin zituen orfeoiak Berlinen.


Alemaniko Rhineko musikaldirian eta Rurheko jaialdian ere izan ziren 2002an; Suitzan, berriz, Luzernako jaialdian hartu zuten parte kantariak 2003an.

Aurten berriz eskaini diete Rurheko jaialdira joateko aukera. Azaroan Herbehereetara joango dira Orfeoiak, Verdiren *Requiem* lanarekin bira egitera.

BERGARAKO EMANALDIA

Donostiako Orfeoiak urtean gutxi gorabehera 35 eta 40 emanaldi artean egiten ditu. Hurrengo Bergaran izango da bihar, zapatua, San Pedro elizan, 20:15ean.

Euren errepertorio zabaletik honako piezak eskainiko dituzte: Bach-en *Cantata n° 147* eta *Cantata n° 140*, Mozart-en *Ave verum Corpus, K.618*, Faure-n *Cantique de Jean Racine* eta *Requiem*, Madi-



Patxi Aizpuri donostiarraren zuzendaritzapean jardungo dute kantuan Orfeoiak.

naren *Aita gurea*, Lloyd Weberen *Pie Jesu*, Bustoren *Ave Maria*, Mendelssohn-en *Salmo n° 43*, Berlioz-en *La condenacion de Fausto* eta Haendel-en *Mesias*.

Jose Antonio Sainz Alfaro da Donostiako Orfeoiaren zuzendari nagusia, baina Bergarako emanaldian Patxi Aizpuri zuzendariordeak gidatuko du Orfeoiak.

Organoa Gerardo Rifonek joko du eta bakarlarri lanetan Ana Salaberria eta Ainhoa Franco sopranoek jardungo dute *Pie Jesu* abestian.



Lazkano eta Ena Bergaran irabazle

Egubakoitzean jokatu zen Moises Azpiazu dantza solte txapelketa Udal Pilotalekuan. Hamabi bikotek hartu zuten parte, eta denek dantzarako abilezia erakutsi ostean, herrian bertan geratu ziren txapela eta zapia laugarren urtez jarraian. Irabazleak Maite Lazkano eta Asier Ena izan ziren, Azkoitiko Azpitarte anai-arrebekin lehia estuan. Zapatuan, Hondarribian, denboraldiko azken lehiaketa jokatu zuten, eta bergararrak bigarren izan ziren azkoitiarren atzetik. //A.

KULTURAPILULAK

Aire libreko pintura lehiaketa domekan

Beart elkarteak antolatuta Ageriko Pintura Lehiaketaren 31. edizioa izango da jokoan domekan, irailaren 19an. Goizeko 09:00etan hasi eta margolariak tarte luze bat izango dute herriko txokoetan zehar euren lanak egiteko. Arratsaldean, sari banaketa egingo dute 18:30ean kultura etxean. Behin lehiaketako irabazleen izenak aditzera eman ostean, aurkeztutako margolan guztiekin erakusketak zabalduko dute kultura etxean bertan. Lanak ikusgai izango dira irailaren 19tik irailaren 30era bitartean.

AGIRREBEÑA JATETXEA

- Kintadak
- Eguneko menuak
- Asteburuko menu bereziak

Igandetan itxita

Ibarra 2, Labegaraieta. Tel.: 943 76 21 45.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ETXAGI JATETXEA

Eraman
eguneko
menua

zure etxera

Masterreka 8 • Tel.: 943 76 53 12

IAHA!

Antzuolako Hizkuntza Akademia

zabaldu berria ANTZUOLAN

ZATOZ ALEMANA IKASTERA!

Irakasle titulatua

Kalegoi 20
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

E, TXO!

'GOMENDATZEN DIZUT' LEHIAKETA ORAINDIK ABIAN
Ibarreko gazte informazio bulegoek *Gomendatzen dizut* lehiaketa ipini zuten abian. Oporretan ikusitako tokien artean gustukoena edo interesgarriena gogoan hartu eta euren arrazoiak emanez fitxa bat beteta lehiaketan parte hartu ahal izango dute gazteek. Gazte bakoitzak nahi beste gomendio egin ditzake, baina fitxak betetzeko azken eguna irailaren 24a izango dela gogorarazi nahi dute bulegoetako arduradunek. Parte-hartzaileen artean zozketa egingo dute eta sari banaketa irailaren 30ean izango da.

JARDUN ELKARTEAK BEGIRALEAK BEHAR DITU
Bergarako Jardun Euskara Elkarteak urtean zehar haur eta gazteekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du. Interesatuek Jardun elkarteak Kultura etxean (Errotalde jauregia) duen bulegora eraman edo bidali beharko dituzte curriculumak urriaren 10a baino lehen. Argibide gehiago nahi izanez gero 943 76 36 61 telefonora deituta jaso ahal izango dituzte.

KONTZERTUA IZANGO DA GAUR GAUEAN GAZTETXEAN
Gaur, egubakoitza, irailak 17, kontzertua izango da Bergarako gaztetxean. 22:30ean hasita, lau taldek jardungo dute eszenatoki gainean. Gasteizko Rombos Negros eta Not Result taldeak batetik, Bergarako Harrikada bestetik, eta hirugarrenik Mexikotik etorriko den Compadres Muertos taldeak euren doinuak eskainiko dituzte.

GUREGAIK/ GAZTE INFORMAZIO BULETINA

Sarean gazteendako informazio berria

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako Gazte Informazio Bulegoak gazteentzako informazio interesgarria astero posta elektronikoki bidez zabaltzeko buletina aurkeztu berri du. Buletina jasotzeko harpidetza egin behar da.

Bergarako Gazte Informazio Bulegoak ordutegi mugatua du. Beraz, posta elektronikoki bidez zabaltzeko den buletin horrekin informazioa edozein unetan eskuragarri izango da sarean.

ATALAK

Buletinean Bergarako edo inguruko berri, hitzordu zein bestelako informazioez gain, Gipuz-

koakoak ere batu nahi dituzte. Beraz, elkarteek Gazte Bulegora informazioa azkar bidaltzeko dei egin dute arduradunek. Bulego arduradun Maider Sedanok esan duenez, "gure asmoa da buletina astero, zapatuetan, harpidetza bidaltzea".

HARPIDETZA

www.gipuzkoa.net/gazteria helbidean egin behar da harpidetza. *Gazte Informazioa* izeneko atalean buletinaren harpidetza egiteko aukera dago. Bergara hautatu eta norberaren helbide elektronikoa idatzi beharko da. Ondoren mezu bat jasoko da eskaera berresteko. Behin eskaera berrestita astero jasoko dute harpidetza buletina.



Maider Osak eta Maider Sedanok aurkeztu zuten buletin berria.

LOTSABARIK/ Josu Olabarria

"Jendearen gezurrek amorratzen naute"


I.A.

Elkarrizketa egiteko deitu diogunean ez du zalantzarik izan baiezkoa emateko. Galderei zorrotz erantzun die, baina mutil apala dela ere erakutsi digu, bere birtute bat esateko zalantzak izan baititu.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Jaietan barrakak merkeago ipiniko nituzke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Ez daukat irudirik.
- Telebistako saiirik gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Goenkale teleaioa dut gustu-




- ko eta egunero ikusten dut. Futbol partiduak eta horren inguruko saiok, berriz, ez zaizkit batere gustatzen.
- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?
Askok ematen didate higuina, telebistan besteei buruz gezurrak esaten agertzen direnek, adibidez. Bestalde, Julian Iantzi *Basetxea*-ko aurkezlea gustatzen zait.
- Zerk amorratzen zaitu?
Jendeak gezurrak esateak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Jatortasuna.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Ikasketei, gero lana lortzeko ezinbestekoa baita ikastea.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Bertutea, ordenagailu konputatzen nahiko abila naizela. Akatsa, aldiz, ikasketetan ez naizela hain ona.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Garen modukoak izaten.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Estitxu Fernandez modukoak.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Txinara edo ekialdeko herrialderen batera joango nintzateke bikotekidearekin.
- Etorkizunerako amets bat?
Lanpostu ona edukitzea, informatikari jardunez, esaterako.




ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBH 2. maila • ZALETASUNAK: Igeriketa eta tenisa • LIBURU BAT: *El reino de las bestias* • FILM BAT: *El rey Arturo* • MUSIKA TALDEA: Ken 7 • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKÓROBEREZIBAR

Ikerlekuko kantoi honetan XVI. mendeko etxe eder bat zegoen, 1919an bota zuten arte. Erret Mintegiko laborategia ere izan zen. Zein da etxe horren izena?

BERGARAROSPETSUAK


Julian Tellaetxe (I)

KOLDO PEREIRA

1 884ko azaroaren 30ean jaio zen, Bergaran. Gazte-gaztetandik itsasoaren deia sentitu, eta mendiz inguratutako herri hau utzi egin zuen itsasora joateko. Lekeition bizi izan zen, eta oso gaztea zela itsaso zabalak zeharkatu zituen; horrek eragin handia izan zuen betiko bere pinturretan. Hamasei urte bete zituenean itsasoa utzi eta pintore hasi zen. Horretarako, Madrilera joan zen Eduardo Chicharroren tailerrean ikastera. Handik bi urtera Parisera joan zen Julien eta Colarosi akademiatan ikasketekin jarraituz. Parisko egonaldiak berebiziko eragina izan zuen, Tellaetxeren lanek nolabaiteko ukitu inpresionista baitute. Zenbait alderditan Gaudiñ eta Matisse dakarzkigute gogora.

Euskal Artisten Elkarteak sortu zuen, 1911n, beste lagun batzuekin batera, eta garai hartan hasi zen bere margolanak jendaurrean erakusten. Parisko Aretoan ere egin zuen erakusketa. Europan zehar ibili zen bere arrantzale eta herritarren margolanak erakusten, baina hori bai, Lekeitio, bere inspirazio-iturri handia, alboratu gabe.

Gaztetan itsaso zabalak zeharkatu zituen, eta horrek eragin handia izan zuen bere pinturan



Lekeitio.

GALDEDEBALDE

1. Belgikako zein hiriko alkatea izan zen Emmanuel Bernaerts?


- A/ Brusela.
- B/ Brujas.
- C/ Anberes.

2. Zeini nagusitu zitzaion Iker Azagirre bergarar pilotaria El Cortijoko txapelketan?

- A/ Iraolari.
- B/ Arrutiri.
- C/ Uharteri.

3. Zein da Donostiako Orfeoiko zuzendaria?

- A/ Jose Antonio Sainz Alfaro.
- B/ Juan Mari Errandonea.
- C/ Juan Jose Mena.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRUNE ZANGITUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, **Irune!** Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Lezarri-Bolu.** / Galde debalde: **1-B, 2-A, 3-B.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

San Miguel garagardoa

Seiko packa.

1,86 €

309 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2
BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ORRASKI
ile apaindegia



ORDUTEGI BERRIA

- Astartetik ostegunera 9:00etatik 16:00etara
- Ostiratan 9:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan 8:00etatik 14:00etara

San Pedro 6 - Tel.: 943 76 47 01

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Neska taldea zerbitzari lanetan Zeleta jatetxean

Argazkian agertzen den neska gazte taldeak fin jardun zuen zerbitzari lanetan erretratua atera zuten egunean, orain dela 80 urte gutxi gorabehera.

Egun hartan jende asko elkartu zen bazkaritarako, ospakizun bereziren bat baitzuten Elgetan.

Zeleta jatetxean izan zen bazkaria, eta mantala jantzita

janaria mahaietara zerbitzatzen nahiko lan izan zuten neskek.

Behin eginbehar guztiak beteta, eta gehienek soinean zituzten mantalak erantzita, neskatila hauei ere iritsi zitzaien jateko ordua. Jatetxeko sukaldearen bueltan bazkari pasada egiten zihardutela harrapatu zituen argazkilariak.

Batzuk argazkirako prest, kamerari begira

irribarretsu, eta besteak koilarak ahoan dituztela, jateko gertu, hona hemen ezkerretik eskumara argazkian agertzen diren nesken izenak:

Mari Mertxe Legaristi, Maria Eugenia Irazabal, Maite Elkoro, Maria Jesus Irazabal, Maria Vitoria Angoitia, Belen Royo, Maria Angeles Elkoro eta Maria Angeles Olabarria.



Argazkia: Maria Eugenia Irazabal

ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a / 214. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Odol ateratzeak Olanan etxean egingo dituzte aurrerantzean

AINZANE IRIZAR


Datorren asteko eguenean, hilak 23, izango da ikasturteko lehen odol ateratzea herrian. Oraingo honetan, Olanan etxean egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Gipuzkoako Odol Bankuko kideak etorriko dira, beti bezala, odola ateratzera.

Urtean hiru odol ateratze egiten dituzte Antzuolan. Antzuolako odol emaileen elkarteko arduradunek adierazi digutenez, herrian 500 bat odol emaile daude, baina, aldiro, 70 bat lagun joaten dira odola ematera. Gero, batutako odol guztia Donostiara eramaten dute, Gipuzkoako Odol Bankuaren egoitzara.

Odol emaileen elkartekoek azaldu digutenez, baliteke aurrerantzean eguenetan izatea odol ateratzeak. Dena dela, aurrerago erabakiko dute eta jakinaraziko diete emaileei.

GAZTEAK BEHAR DITUZTE

Jose Angel Arbulu Antzuolako Odol Emaileen elkarteko arduradunak adierazi digunez, emaile kopuruari dagokionez, maila ona du Antzuolak. Hala ere, jen-



Eguen arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, Olanan etxean izango da odola ematea.

de gazte gehiago behar dute odola emateko. 18 urtetik 65 urtera bitartekoek eman dezakete odola, emakumeek urtean hiru aldiz eta gizonezkoek lau aldiz. "Gero-

ago eta odol gehiago behar da; pozik gaude odol emaile kopuruarekin, baina, gazteak gehiago animatu nahi ditugu odola ematen hasi daitezen", diosku

Jose Angelek. Lehenengo aldiz eman nahi duenak, eguenean Olananera joatea besterik ez dauka, eta hantxe emango diote beharrezko informazio guztia.

HERRITARREN HITZA / Ainhoa Ugarteburu • Soziologoa

Gezurrak

Gezurria beti izan da gezurterua. Batzutan, gezurtxuak izaten dira, maite dozuna babesteko ustian edo, konturatuko ez dalakuan. Beste batzutan, gezurrak ondokua mintzeko egiten dira; esan egixa ez dan zerbait, jakinian ez dala egixa, ta gainera, hasarria, gorrotua ta ikusiezina ekarriko dittuala. Hauek, anbito pribatuan eginaz gero, txarrak izan leizke, baina hortxe geratzen die, etxian.

Gero gezur haundixak dare. Gezur politikuak, ekonomikuak, kulturalak. Hauek ez dabe zure osabagan edo mutil

lagunagan bakarrik eragiten, gizarte oso baten eragiten dabe. Boteriak, anbitu publikuak, gezurra ta manipulaziñua dauzka bere inguruan dantzan, ta askotan garaile urtetzen die, ekarriko dittuan ondorixo politiko, ekonomiko edo sozialak gezurteruari etekin zuzena badakarzkio. Gezur hauek, batzutan azaldu egiten die, ta gezurteruaren zoritxarrerako, bistaratuak



"Boteriak gezurra eta manipulaziñua dauzka bere inguruan dantzan"

dira. Tximua gero eta gorago orduan eta ageriago ipurdia. Baina, zenbat gezur eta gezur esan dittue, gu konturatzera. Aznarrek zenbat esan zittuan, M-11ko nazkagarri-keixa hori egin aurretik, Prestigaren inguruan, Iraken inguruan, Egunkariaren, Eginen, euskal kulturian edo

ikastolen inguruan? Zenbat pasa dira egixa balira moduan,

komunikabidiak esan, eta guk, sinistu. "Hori badiote zerbaitegatik izango da".

Bushek, gezurtero horrek, zenbat esan dittu, lehenengo, AEBtako lehendakaritzarako hauteskundeetan, eta gero I-11n, Afganistanen, Iraken, Guantanamo... Zenbat gehixago esan behar dittu, Etxe Zuritik bota aurretik? Ez dira bakarrik, hor daude Blair gentlemana, Berlusconi, Chirac, Putin... Euren Estatu Arrazoiak, egixa baino garrantzitsuagoak dira. Ondorixuak, gosia, gerria, ankerkerixia, deshumanizaziñua... Miserixia azken batian.

LABUR

Datorren astean zabalduko dute gaztetxea

Datorren asteko egubakoitzean, irailak 24, zabalduko dute Antzuolako gaztetxea. Inauguraziorako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gazte Asanbladako kideek.

Arratsaldeko seieta bideo emanaldia egingo dute gaztetxean; 19:30ean, berriz, trikitilari eta bertsolariekin poteoa egingo dute herriko tabernetan, eta ondoren, bertso afaria, Xabier Silveira bertsolariarekin. Ekitaldi sorta polita, hortaz, gaztetxeari ongi-etorria emateko.

Yoga ikastaroa irailaren 20an hasiko da

Aurreko astean yoga ikastaroa irailaren 27an hasiko zela iragarri genizuen arren, azkenean, irailaren 20an, astelehena, hastea erabaki dute.

Jose Luis Armendia arratsaterria izango da irakaslea. Urtero moduan, Olanan etxean izango da ikastaroa, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 20:30era. Gogoratu ezazue manta bat eramane behar dela ikastarora.

Astelehenean berbaldia egin zuen Jose Luisek eta jende ugari parte hartu zuen.

Eskulan ikastaroa urrian hasiko da, Olanan etxean

Urriaren 7an, hain zuzen ere, hasiko da eskulan ikastaroa. Bergarako Izeder dendako Edurne Uribealzo izango da ikastaroa; eguenero elkartuko dira, Olanan etxean, 14:30etik 16:30era.

Irailaren 30ean, eguena, batzarra egingo dute irakaslearekin; hantxe erabakiko dute ikasturtean zehar zer landuko duten.

Aipatzekoa da, bestalde, bi hilabeteko etenaldia izango duela ikastaroak, urtarrilean eta otsailean, seguruenan.

GIZARTEA

Karmen Irizar presoak zigorraren hiru laurdenak beteko ditu urrian

AINZANE IRIZAR

Datorren hilabetean, urrian, beteko ditu Karmen Irizarrek ezarri zioten zigorraren hiru laurdenak. Zigor osoa bete arte kartzelan jarraituko balu 2006ko apirilean lagako lukete aske.

2001eko uztaila ezker dago preso Karmen. Martuteneko espetxean egon zen aurtengo martxora arte. Gero, Valladolidera eraman zuten, eta hantxe dago ordutik.

1998ko martxoan atxilotu zuten Karmen, eta bederatzita hilabete eman zituen Madrilgo kartzeletan; lehenengo, Carabanchelen, eta gero, Soto del Realen.

LAU HILABETE ISOLATUTA

Senitartekoez azaldu digutenez, martxoaren 11ko Madrilgo atentatuaren ondoren, lehenengo gradua ezarri zioten; horrek esan nahi isolatuta egon zela: 20 ordu pasatzen zituen ziegan eta lau ordu patioan, bera bakarrik.

Abuztutik, berriz, bigarren graduan dago. Bestalde, familiak esan digunez, senitartekoen bisitez gain, hamar lagunek bakarrik dute Karmen bisitatzeko aukera.



Karmen, Martuteneko espetxean.

ARTXIBOA

KIROLAK

Asteburuan hasiko dute aurtengo denboraldia futbol taldeek

AINZANE IRIZAR

Oraingo asteburuan ekingo diete herriko futbol taldeek denboraldi berriari. Neskek izango dute lehendabiziko partidua, zapatu goizean. Gazteen taldeak eta neskenak etxean jokatu dute; beste bik, berriz, kanpoan.

Udako oporraldiaren ondoren, oraingo asteburuan hasiko dute denboraldia herriko futbol talde guztiak. Neskek jokatu dute

aurreneko partidua; Estalan izango da hori, zapatuan, 11:30ean. Zumarragako Urola taldea izango dute aurrez aurre.

Gazteek ere etxean ekingo diote denboraldi berriari; Donostiako Ekintza taldearen aurka jokatu dute, zapatu arratsaldean, 16:30ean. Kadete eta erregional mailako taldeek, berriz, kanpoan izango dituzte partiduak. Kadete mailako taldea Eibarrera joango da zapatu goizean; Urki taldearen aurka jokatu beharko dute herriko mutilek, 12:00etan.

Erregional mailako taldeak ere Eibarren ekingo dio denboraldi berriari; zapatuan, 15:30ean, izango dute partidua Eibartarrak taldearen kontra.

TOLEDO, EHIZA TXAPELDUN

Aurreko asteko domekan jokatu zuten herri mailako ehiza txapelketa.

Castillo de Zambranen. Iñaki Toledo izan zen txapelduna; ondoren, Jose Maria Alberdi, Jaime Larrea, Migel Agirre eta Javi Iglesias sailkatu ziren.

LABUR

Arantzetak ezezkua eman du eta Gregorio Madariaga deitu dute kargua hartzera

Orain dela hilabete batzuk EAJ-EAko zinegotzi Gurutz Madariagak dimisioa aurkeztu zuen; horrela, Imanol Garmendia eta Ildefonso Garciarekin batera, zerrendako hurrengo ere kargua hartzera deitu dute; Jose Luis Arantzetak ezezkua eman du eta Gregorio Madariagak zinegotzi kargua hartzeko deialdia dauka gaur, egubakoitza egingo duten osoko bilkuran.

Herriko kirolariek osasun azterketak egiteko dirulaguntzak dituzte

Udalak gogoratu nahi die herriko kirolariei osasun azterketak egiteko dirulaguntzak jaso ditzaketela, 25 euroko laguntza, hain zuzen ere. Horretarako, azterketaren faktura aurkeztu behar da udalarekin. Behobia-Donostia lasterketa egin aurretik azterketa egitea gomendatzen die Udaleko Kirol Sailak korrikalariei.

Gaztegunerako begiraleen lan-poltsa osatu nahi du Udalak datorren hilabeterako

Hamabi eta hamabost urte bitartekoendako lokala da Gaztegunea. Momentu honetan, bi begiralek dihardute hantxe lanean. Aurrea begira sortu daitezkeen bajak betetzeko lan-poltsa osatu nahi du Udalak. Interesa dutenek curriculumak eraman beharko dituzte udaletxera, urriaren 15a baino lehen.



Tomate galantak Aritzagabasalden!

Sekulako tomateak izan dituzte aurten Aritzagabasalde base-rrian. 2,2 eta 1,7 kiloko tomateekin ikus dezakegu argazkian Rosa Blanca Mendizabal. Aurreko asteko eguenean batu zituzten tomateok, txingorra botatzen hasi aurretik. Kalte handiak eragin zituen txingorrek Antzuolako hainbat auzotan, baita Basalde auzoan ere, eta justu-justu batu zituzten tomateak Aritzagabasaldekoek./A.I.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

AITZ-GARBI
taberna
jatetxea
Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak
BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko irailaren 17a / 198. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Sagardo Eguna bihar herriko gazteen eskutik

IRATI AGIRREAZALDEGI

Biharko, zapatua, Sagardo Eguna antolatu du Gazte Asanbladak. Besteak beste, patata tortilla eta mozorro lehiaketak, sagardo dastatzea, herri afaria eta kontzertua egongo dira, eta antolatzailleek jaiari parte hartzeko dei egin dute.

Aurki udazkenean sartuko gara eta, urteroko ohiturari jarraituz, Sagardo Eguna egingo dute bihar, zapatua, Gazte Asanbladak antolatuta. Aurtengoa zazpigarren aldia izango da.

Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak plazan. 18:00etan sagardo kupelak zabalduko dituzte eta horrekin batera patata tortilla lehiaketa ere hasiko da.

Aurtengorako bada berrikuntzarik tortilla lehiaketan. Izan ere, antolatzailleek partaideei mozorrotuta joateko dei egin diete, tortillarik onena ez ezik mozorrorik aproposena ere sarituko baita.

Batzuek tortillak egiten eta beste batzuek sagardoa edaten diharduten bitartean giroa alaitzeko musikaririk ez da faltako. Elgetako trikitilari eskolako gaztetxoek jardungo dute trikiti doinuak eskaintzen.

HIRU SAGARDOTEGITAKO KUPELAK

Plazan hiru kupel ipiniko dituzte eta gainontzekoak herriko hainbat txokotan banatuta egongo dira, tabernen inguruan, hain zuzen ere.

Gaztetxean egongo da bat, Panaderokua tabernaren ondoan beste bat, Haizea eta Patxi tabernen artean beste bat eta Espaloian ere egongo da kupel bat. Azkenik,



Plazan hiru sagardo kupel ipiniko dituzte eta gainontzekoak tabernen inguruan.

Tortilla lehiaketako partaideei mozorrotuta joateko dei egin diete antolatzailleek

Ostatuan sagardoa botiletan banatuko dute. Kupelak Isastegi, Lizeaga eta Axpe sagardotegietatik ekarriko dituzte.

Sagardoa edateko plazan bertan erosi ahal izango dira edalontziak, 1,50 euroren truke. Edalontziak ez ezik, pintxoak ere ipiniko dituzte salgai, baita lehiaketa

amaitu ostean tortillak erosi ahal izateko txartelak ere. Gaztetxeko materialik ere ez da faltako plazan ipiniko duten mahaietan.

SARIAK ETA AFARIA

Lehiaketako sariak banatuko dituzte gero, eta saria jasoko dute tortilla eta mozorrorik onenak ez ezik, baita tortillarik txarrenak eta originalenak ere. Zein diren erabakitze ardurak guraso elkarreko hiru kidek izango dute.

Giroa berotuz joan ahala aforitarako ordua ere helduko da, eta nahi duenak sagardotegiko menua dastatzeko aukera izango du plazan: txorizo egosia, bakailao tortilla, bakailao zatiak piperekin, txuleta, eta intxaurrek eta gazta postreerako.

Afariaren ondoren, nahi duenak dantzarako aukerarik ere izango du gaztetxean. Oñatiko Potemkin eta Berrizko Ene Bada taldeek jardungo dute bertan.

Sagardo Egunaren antolatzailleek herritarrak eta ingurukoak animatu nahi dituzte zapatuko jaiari parte hartzera. "Aurreko urteetako ikusita aurten ere giro polita sortzea da gure asmoa", esan digute.

INGURUMENA

Pinudietan kalteak eragin ditu txingorrak

Uztailaren 19an izandako txingor zaparradaren ondorioz, Eibar eta Elgeta arteko hainbat pinudik kalteak izan zituzten eta pinuak ihartu eta gorritu egin dira.

Pinuen arazoa aztertzeko, asteon, Foru Aldundiko adituak izan dira Elgetan. Txostena gertatu bezain pronto emaitzak kalteuei jakinarazteko asmoa azaldu du Udalak. Eurekin bilera egingo du hila amaitu aurretik.

Guztira, 80 hektarea kaltetu ditu txingorrak. 30 hektareatan

pinu guztiak hondatu dira, beste 25 hektareatan pinuen hiru laurdena eta gainontzeko esparruan erdia. Gutxi gorabehera 15.000 pinu daude bertan, gehienak 10 eta 20 urte bitartekoak.

LAGUNTZAK

Gune batzuetan pinu guztiak bota beharko dira eta beste batzuetan, berriz, hondatuta daudenak.

Kalteak direla-eta baliteke Foru Aldundiak laguntzak ematea pinudien jabeiei.



Eibar eta Elgeta bitarteko pinudietan ihartu eta gorritu egin dira pinuak.

LABUR

Beteranoen lau t'erdiko pilota txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Iaz antolatu zuten lehen aldiz Elgetan beteranoen eskupilota txapelketa, eta ongi joan zela ikusita aurten berriz ere deialdia egin dute. Torneoa lau t'erdiaren barruan jokatu dute, binaka eta pilota bigunarekin. Interesatuak Fernando Zenitagoiarengana jo beharko dute izena emateko.

Gaur eta martitzenean eman ahal izango da izena ludotekan eta zaintza zerbitzuan

Txirikil aisialdi taldeak ludotekan eta zaintza zerbitzuan izena emateko egunak zehaztu ditu: gaur, barikua, 17:00etatik 20:00etara eta martitzenean 17:00etatik 19:00etara ludotekan. Zaintza zerbitzua 07:30etik 09:00etara eta 16:00etatik 17:00etara bitartean egingo da eskolan. Eguneko sei euro ordaindu beharko dira eta hil osoko zerbitzuaren truke, berriz, 72 euro. Ludoteka astelehenean eguenera 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik eta hilean 40 euroko kuota ordaindu beharko dute erabiltzaileek.

Sagardo Eguneko egitaraua

18:00: Tortilla eta mozorro lehiaketen hasiera, plazan.

Ordu berean, kupelak zabalduko dituzte.

19:30: Sari banaketa, plazan.

21:00: Herri afaria, plazan.

00:00: Kontzertua, gaztetxean.

- Potemkin
- Ene Bada

ELKARRIZKETA

MAIER IRAZABAL/AEROBIK IRAKASLEA

"Aerobik klasikoaz gain, tonifikazioa ere egingo dugu giharrek lantzeko"

I.A.
Ikasturte berria hastearekin batera Udal Kirol Zerbitzuak hainbat ikastaro egiteko aukera eskaini du. Besteak beste, fitnessa, aerobika eta dantza. Maier Irazabal elgetarrak izango du ikastaroen ardura, eta kirol horien berri eman digu.

Aerobik ikastaroak emango dituzu aurten. Zein da zure asmoa?

Aurreko urteetako erantzuna ikusita, aurten aerobikari bultzada eman nahi diogu beste hainbat ariketa eta kirol eskainiz.

Zein izango diraurtean zehar eskainiko dituzuen aukera horiek?

Astean lau egunean emango ditut eskolak, eta talde bakoitzak bi egunean jardungo du. Lehenengo taldearekin tonifikazioa landuko dut. Hau da, giharrei forma pixka bat emateko ariketak. Honetaz gain, indarra ere landuko dugu. Tonifikazio eskoletan ez da inongo koreografiarik egongo, beraz, mutilei ere animatzeko esango nieke, aerobikerako ez baitute izenik ematen. Gainontzeko bi egunetan ariketa kardiobaskularrak egingo ditugu batik bat: aerobik klasikoa eta dantzak aerobikean oinarrituta.

Aerobika egiteak zein onura dakar?

Aerobika argaltzeko egokia da. Tonifikazio ariketak eginez, berriz, badago argaltzeko aukera, baina baliteke loditzea ere, giharrek pisua dutelako. Beraz, egokiena biak egitea litzateke, eta guk horretako aukera ere eskaintzen dugu.

Ezagarri bereziak behar dira aerobika egiteko?

Ez. Sekula egin ez duenak hasieran zailtasunak izan ditzake koordinatzeko, baina gogoaz izanez gero tamaina hartzen zaio. Tonifikazioa egin nahi dutenek



I.A.

"Aerobikean hasieran koordinatzea zaila bada ere, segituan hartzen da tamaina"

"Taldean kirola egin eta gorputza mugitzeko ikastaroa egitera animatuko nuke jendea"

ere landu nahi dutenaren arabera egokitu ahal izango dituzte bai pisua eta baita ariketen gogortasuna ere.

Nolakoak izango dira saioak?

Beroketa ariketekin hasiko gara bi taldeetan; aerobikeko eskoletan intentsitateak gora egingo du eta azken hamar minutuetan bestelako ariketak egingo ditugu; tonifikazioan, gorputzeko gihar guztiak landuko ditugu pisuen bidez, steparekin, flexioak eginez....

Nola animatuko zenuke jendea ikastarora etortzeko?

Etorri eta probatzeko esango nieke. Taldean kirola egin eta gorputza mugitzeko era egokiak dira aerobika eta tonifikazioa.

INFORMATIKA

Kzguna berriz ere zabalik egunero

I.A.

Oporretako etenaldiaren ostean, Elgetako Kzguna abian da berriz ere. Orain artean bezala asteleheneetik ostiralera, 16:30etik 20:00etara bitartean, egongo da zabalik liburutegi aldamenen dagoen Kzgunearen gela.

Gela egunero zabalduko badute ere, tutorea hamabostean behin egongo da bertan, eguaztenetan,

ohiko ordutegian, erabiltzaileei argibideak emateko.

Beraz, Internet erabili nahi dutenek bertara gerturatu besterik ez dute.

Kzguna 2002ko azaroan ireki zuten Elgetan, eta 102 erabiltzailek eman du izena bertan.

Ikastaroak egin izan dituzte Kzgunean. Parte hartu dutenen artean emakumeak dira gehien-goia eta lanean dihardutenak.

MUSEOA

Mendi Museoaren proiektua hastear da

I.A.

Domingo Iturbe eraikinean egingo duten Mendi Museoaren proiektua oraindik egiteko dago, baina lan hori egin aurretik txosten bat gertatu nahi du Udalak.

Txostenean eraikinaren ideia arkitektonikoak jasoko dituzte irudien bidez. Aurkezpena papelean eta era digitalean egingo dute eta hiru dimentsioko muntai bat ere izango du.

Txostena egiteko kontuan hartuko dituzte Mendi Museoaren jarraipena egiten diharduen

batzordeak esandakoak. Hau da, museo horrek zein behar bete beharko lituzkeen.

Bertan, proiektuaren informazio zehatzaz gain, museoaren betebeharren programa eta lanen kostua zenbatekoa izan daitekeen ere jasoko da.

Xabier Untzurruntzaga arkitektoa arduratuko da txosten hori egiteaz eta sei aste epea izango du horretarako.

Udalaren helburua da aurreproiektu hori erabiltzea, besteak beste, dirulaguntzak eskatzera joateko.



Domingo Iturbe eraikinean egingo dute Mendi Museoa.

I.A.




RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxes: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

Beste bost
arrazoi edukitzeko:

Segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna,
segurtasuna.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekiak.



Opel Astra berria. Segurtasun handiena. EuroNCAP, 5 izar.



Opel Astra berriak EuroNCAP 5 izar lortu ditu eta goreneko puntuazioa ondorengoetan: alboko eta aurretiko inpaktua txoke proban eta umeei babesa Sedan trinko kategorian. SAFETEC sistema berritzaileak segurtasun aktiboa konbinatzen du, eta hau guztia du barne: IDSplus xasisa, faro moldakorrak, aurretiko aire-zakuak, segurtasun pasiboan berriz: aurretiko aire-zakuak, gortina aire-zakuak eta alboko aire-zaku handiagoak. Astra autoaren inguruan informazio gehiago nahi baduzu, bisita ezazu gertuen daukazun Opel banatzailea edo deitu 902 20 05 90 telefonora edo sartu gure webgunera: www.opel.es

Astra gama: kontsumoa (l/100 km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

Olabarrena, z/g. Tel. 943 76 33 44/46.
BERGARA